

JOSE MARIA SANCHEZ CARRION «TXEPETX» EN TEORIAREN EKARPEN ETA APLIKAZIOAZ

Iñaki Larrañaga

Siadeco Ikerketa Elkarteko kidea

Jose Angel Irigaray

Zenbat Gara Kultur Elkarteko (Kafe Antzokiko Kultur Sailean) kidea eta idazlea

Joxe Angel Irigarai: 1972. urtean euskaldungoa harriturik geratu zen *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* delako liburua agertu zelarik. Nor ote zen Jose Maria Sanchez Carrión, izengoitiz, Txepetx hura? Urte haietan ia inork ez zuen ezagutzen, nahiz eta aurreko urteetan hemendik barna ibilia izan. Sekulako zirrara eta oihartzuna sortu zituen euskalarien artean, baita miresmena ere kanpotik etorri batek zer nolako ikerketa interesgarri eta bizia egin zuen ikusirik.

Egin zuen lana ez baitzen ohikoa tenore hartan; ez zen geografia linguistikoari zegokion ikerketa arrunt bat (soziometria edo eginez: non mintzatzen zen, non ez, adinak, non ziren galerak, e.a.); lehen aldikotz hasten zen galera horien zergatikoak xilatzen, eta gainera era eraginkor eta zientifiko batez.

Egileak hala zioen liburuan: *«he sido objetivo y científico o al menos lo he intentado pero no puedo disimular, ni lo quiero, de qué lado están mis simpatías edota: conociendo los síntomas hemos podido reconocer la enfermedad, y conociendo ésta podremos tratar de curar a nuestro enfermo euskera. Por ello esta obra pretende aportar luces sobre las causas de la deseuskeringización, los*

medios de defensa de la lengua hoy, los puntos más necesitados de ayuda inmediata y por dónde debe encauzarse ésta». Han auzia aztertzeke urrats kualitatiboa zetorren.

(Handik urte zenbaitetara, guti, aita zenak lehenbizi eta gero nik Jose M^a pertsonalki ezagutzeko hauta ukan genuen; geroztik adiskidantza mailan eta ideien munduan trebaturik etorri gara, elkarrekin egin dugu bidearen puska bat).

Ondoren *Lengua y pueblo, El espacio bilingüe*, zenbait artikulua mamitsu etorri ziren. Beti era eraginkor, orijinal, berri batez uztartzen baitzituen Euskararen esperientzia historikoa eta pertsonala, Txepetxena berarena; orobat hizkuntzaren tokian tokiko eta unibertsal arazo eta dimentsioak.

Eta hori du, hain zuzen, ezaugarrietariko bat: esperientzia oldoztuak, pentsatuak, eta pentsamolde edo ideia bizituak uztartzen saiatu izana beti; hortik, eta Euskaratik abiatuak, sortu da berak ekarri eta eskaini duen guztia, *Un futuro para nuestro pasado* barne. Kanpotik etorri baldin bazen ere hainbat zen herriratu, soziolinguistikari jarraiki natibizatu, non Euskararena bere naziotzat hartu baitzuen; beste tokietakoa ere baldin bada, bereziki hemengoa da, hemen oldoztu eta isuri baitu soziolinguistikako mintzo berria, hemen habia egin, nahiz eta, txepetxa denez, zenbaitetan hegan eman.

Iñaki Larrañaga: Bai, gu izan ginan, zuk aipatu bezala, harriturik eta pozik irakurketa hori egin zutenetako batzuk. Hain zuzen, gu sortu ginen 1967an, sozio ekonomia ikerketa talde gisa, ikerketa aplikatuaren talde gisa sortu ginen eta, euskarari buruzko informazioa beti jasotzen genuen nahiz udalerrri mailako ikerketetan, nahiz eskualdekoetan eta nahiz beste hainbat ikerketa egiten genituen.

Gure ikuspegia ikuspegi soziologikoa izaten zen eta hori guztia uztartu nahi izaten genuen nolabait udalerrri edo eskualde bakoitzak zituen ezaugarri sozio-demografiko, sozio-ekonomiko, sozio-kulturalekin eta abar. Hala nola hizkuntzaren hedapena edo higadura eta erosioak kasu bakoitzean zergatik sortu ziren eta horietan zein erakundek izan zuten zerikusia eta eragina, eskolak, edo administrazioak edo industrigintzaren sorrerak eta inmigrazioak eta gaineratikoak. Mundu horretan mugitzen ginen edo horretan ibiltzen ginen, ikuspegi aplikatutik beti ere.

Jose Mariren aportazioari dagokionez, edo berak lehenik Nafarroari buruz eta gero batez ere *Lengua y pueblo* eta *Espacio bilingüe*, eta beste hainbat artikulua idatzi ondoren berehala elkar ulertu ahal izan genuen bataren eta bestearen kezka edo ardurak bide bertsutik edo antzekotik zihoazela ikusirik.

Nik Jose Mari Aramaion zegoela ezagutu nuen eta gero handik Donostia-
ra etorri zenean Altzako institutoan zegoela, Londresera joan aurretik, eta harreman horiek izaten hasi ginen. Ordurako gure taldean hasita baike-
unden Euskaltzaindiarentzat geroago burutu genuen azterketa soziolin-

«Eta hori du, hain zuzen, ezaugarrietariko bat: esperientzia oldoztuak, pentsatuak, eta pentsamolde edo ideia bizituak uztartzen saiatu izana beti; hortik, eta Euskaratik abiatuak, sortu da berak ekarri eta eskaini duen guztia, "Un futuro para nuestro pasado" barne»

«Niretzat, aldiz, pertsonalki eta guk generaman bidearentzat, hain zuzen, garrantzi handiko kontua izan zen garbi ikustea praktikarik onena edo aplikaziorako tresnarik onena teoria on bat dela. Ez dagoela, alegia, teoria on bat bezalako tresna egokirik praktikarako»

guistiko orokorra egiten; ikerketa hori 1978an argitaratu bazen ere, 1975eko datuetan oinarritzen zen, beraz, garaitu hartako kontuak ziren.

Eta esan behar dut hasieratik gure arteko uztarri edo lotura piska bat finkaturik gelditu zela. Berak betebeharreko eginkizuna edo bere funtzioa, ikerketa oinarritzko edo fundamentala deitzen zaiona izango zen, hau da, sormenaren ikerketa edo elaborazio teorikoarena, alegia. Gurea, berriz, ikerketa aplikatuarena, hau da, berak egiten zuen teoria hori gure ikerketa aplikatueta ea nola gauzatu zitekeen ikustea eta gauzatzen ahalegintzea. Kontua zen ea zer ekarpen egiten zizkion teoria horrek ikerketa aplikatuari eta, beste aldetik berriz, guk gure ikerketa aplikatueta sortzen zitzaizkigun behar edo galderen erantzunak eskatzen genizkion berari.

Horrela, nik uste elkarrekiko eginbeharrak edo funtzioak nahikoa ongi definitu zirela hasieratik, eta horregatik guk egiten genituen lan praktikotatik bildutako informazioa edota gure ikerketa aplikatueta lanen berri ematen genion, berak, Londresen edo beste nonbait zegoenean ere, hemen egiten ziren ikerketa soziolinguistikoen berri izan zezan beti.

Azken batean, gure ikerketa aplikatua bere oinarritzko teorizazio horren markoan kokatzen zelako, eta hor kokatu beharra ikusten genuelako, guri, hasiera batean falta zitzaigun marko teoriko hori, hain zuzen, Jose Marik egindako elaborazio horietan aurkitu genuelako, eta horregatik nik uste erraz samar etorri ginela bat funtzio banaketa horretan.

J.A.I Aramaio aipatu duzu, baina lehenbiziko urteetan Saldisen ibili zen, herri eskolako errient, Francoren denboran klaseak Euskaraz...; gero Aramaion, Burletan, Altzan, Londresen, Gasteizen, Irunen e.a. Bestalde, herri-arnasatik zetozen mugimendu guztietan beti ibili da inplikaturik. Esan nahi baita, gauza izan da benetako teoria berri bat sortzeko, osatzeko eta gero eskaintzeko, azaltzeko (sortzaile bati dagokion praktika), eta gainera, hasieratik herri-arnasan inplikaturik ibiltzeko, nonahi zegoela; edota alderantziz: praktikan urraturikoak dio bidea eman hartaz teorizazio gero eta osatuagoa oldozteko eta praktika gero eta argiagoa abiarazteko. Bere bizian berean teoria eta praktika osagarriki eta emankor ditu uztartu.

I.L. Bai, eta hari beretik jarraituz, nik esango nuke, jende batentzat bederen, bere irudia sormen eta abstrakzio mundu batean dagoen norbaitena dela. Jende horrentzat bere idatziak ulergaitzak edo erabiltzen dituen kontzeptuak aplikaezinezkoak edo ametsa, ilusioa edo lilura sortzeko balio dutenak baina gero praktikara eramanezinezkoak dira. Izan ere, praktika askoz itsusiagoa, garrantzagoa, zikinagoa baita eta hainbat gauza nahasten dira tartean.

Niretzat, aldiz, pertsonalki eta guk generaman bidearentzat, hain zuzen, garrantzi handiko kontua izan zen garbi ikustea praktikarik onena edo aplikaziorako tresnarik onena teoria on bat dela. Ez dagoela, alegia, teoria on bat bezalako tresna egokirik praktikarako. Eta alderantziz, praktika egokitzeko balio ez duen edo praktikan aplikatu ezin den teoriak ezer gutxi balio duela.

Zentzu horretan nik uste, gure asmoa eta helburua hori izan zen: elkarri galderak eginez elkar osatzea, beti ere, noski, garrantzi eta lehentasuna emanaz Jose Marik egiten zuen hausnarketa eta gogoetari sormen lan horrek duen garrantzia kontuan izanik.

Nolanahi ere, uste dut azpimarratu behar dela bere kezka beti izan zela praktikan egiten ziren eta aplikazio mailan egiten ziren ikerketen berri jakitea eta berri zehatza, hurbil hurbilekoa, jasotzea. Horregatik eta horretarako izaten ziren, erabiltzen genituen metodoen eta beraien aplikazioaren berri ematea, horien berri ere jakin zezan eta baloratu zitzaizkien. Eta nik uste zentzu horretan, ikerketa fundamentalaren eta ikerketa aplikatuaren lotura hori egitea azken batean lortu dugula edo, behintzat, bide horretatik ibili garela geroztik.

J.A.I: Txepetx lanak soziolinguistikaren heldutasun eta errekonozimenduaz landa, berezko izaera eta izaria, hizkuntzaren eremua baino haratago doan biziarenak berarenak, ekarri zituen; orobat, ohizko soziolinguistikan gertatu ohi den baino bizi eta dinamikoagoa den soziomugimendu integratzailea abiaraztea. Hasmentatik eta erroetik baitu hori: gizartean, bizian, txertatzeko nahikari eta deliberamendua. Hor ere orijinala eta aitzindaria.

Gisa hortaz ezohikoa den uztarketa egitea erdietsi zuen. Hizkuntzaren bizi eta bizitzaren hizkuntzarena. Hor oinarritzen da, nire idurikotz, haren aportaziorik nagusienetakoa, nagusia ez baldin bada. Hori heldutasun gradora daraman liburua eta lana, *Un futuro para nuestro pasado. Teoría social de las lenguas y claves de la recuperación del euskera* da. Abiapuntu horretatik du aztertzen, perspektiba bat oldozten eta eskaintzen, eta perspektiba bat aldarrikatzen; etengabe batetik bestera eta bestetik batera doalarik. Aldarrikatuz, bidenabar, hizkuntzaren arazoan hori bera egin behar dela, holako dinamika bat eragin behar dela (hizkuntzaren funtzioak, hiru zutabeak eta hizkuntz komunitatearen ardatzen arteko etengabeko zirkuitoa eta harremana garatuz).

I.L: Bai, ordurarte, soziolinguistikaz 1960. hamarkadan argitaratu ziren liburu, artikulua etabarretan, soziolinguistika bi ikuspegi desberdinetatik ikusi ohi zen. Batzuentzat soziologiaren adar bat zen eta beste batzuentzat, berriz, linguistikaren adar bat. Orduan, nola kasu batean hala bestean, soziolinguistikak ez zuen bere autonomia propioa ez eta zientzia bezala garapen osorik edo bere nortasun propioa, beste zientzien adar modura planteatuta zegoelako.

1970. hamarkadan hasten da piska bat soziolinguistikaren azalpen hori aldatzen eta zientzia autonomo gisa definitzen, eta gure artean Jose Mari da, bere ikerketetan azaltzen duen ikuspegiarekin, soziolinguistikari dimentsio berri bat ematen eta, beharbada, kanpoko idazle, nolabaiteko iker-tzaile eta soziolinguistikako irakasle edo horri buruz idatzi dutenek eta abarrek ematen ez dioten ikuspuntua ematen hasten dena. Nik hor ikusten dut, funtsean, Jose Marik egiten duen aportazioa: soziolinguistika,

«Txepetx lanak soziolinguistikaren heldutasun eta errekonozimenduaz landa, berezko izaera eta izaria, hizkuntzaren eremua baino haratago doan biziarenak berarenak, ekarri zituen; orobat, ohizko soziolinguistikan gertatu ohi den baino bizi eta dinamikoagoa den soziomugimendu integratzailea abiaraztea»

«1970. hamarkadan hasten da piska bat soziolinguistikaren azalpen hori aldatzen eta zientzia autonomo gisa definitzen, eta gure artean Jose Mari da, bere ikerketetan azaltzen duen ikuspegiarekin, soziolinguistikari dimentsio berri bat ematen hasten den»

munduko hizkuntzak nola sortzen, nola bizitzen eta nola garatzen edo hiltzen diren aztertzen duen zientzia gisa definitzea. Era berean aztertzen ditu hizkuntzen bilakaeran eragina eta zerikusia duten faktoreak. Horrek eramaten du hizkuntzen artean ematen diren egoera desberdinak aztertzerara, hala nola: konfliktiboak edo traketsak, gatazkatsuak, subordinazio eta ordezkapen edo sustituzio egoerak, e.a. Eta hori guztia, noski, soziolinguistikaren barnetik planteaturik. Hizkuntzak berreskuratzeko jarraitu behar den bidea ere soziolinguistikaren barnetik planteatzen du, zuk esaten zenuen moduan, diagnostiko bat egin ondoren analisi prospektibo bat eginez, etorkizunari begira eta berreskurapen prozesua garatzeko, normalizazio egoera batera iristeko haustura tentsioko gunetik abiatuz zer nolako birajea egin behar den edo nolako prozesua jarraitu behar den esplikatu du inork ez bezala. Zentzu horretan, beraz, dimentsio berri bat ematen dio Txepetxek soziolinguistikari, hain zuzen hizkuntzaren bizitzaren gertakizun horiek guztiak eta horien legeak aztertu nahi dituela azalduz. Azken batean zientzia egitea hori da, behaketa sistematiko baten bidez aurkitzea ea zein diren gertakizun horiek biziarratzen edo bizitzaerakoan jarraitzen dituzten legeak eta egiten dituzten bideak.

Izan ere, soziolinguistikako zientzialariaren egiteko nagusia, beste edozein zientzitan bezala, hizkuntzaren egoera eta bilakaerak adierazteko balio duten kontzeptu unibertsalak sortzea edo asmatzea baita. Eta Txepetxek soziolinguistikako unibertsal asko argitu duela ezin uka.

Bestalde, esan behar da soziolinguistika hitza agian motz gelditzen zaiola eta berak aitortzen du azken aldian idazten dituen artikuluetan bere ikerketen gaia adierazteko gustoko hitza, soziolinguistika baino gehiago, hololinguistika hitza dela, zentzu honetan: hizkuntzaren bizitza osoa eta hizkuntzak dituen dimentsio guztiak aztertu eta jorratu nahi dituelako, bai bere alde soziologikoa, psikologikoa, estetikoa, etikoa eta gaineratiko ikuspuntu desberdinak landuz. Azken batean bizitza globaltasun horretan ematen da, hizkuntzen bizitza ere globaltasunean ematen da eta hori da berak aztertu nahi duena.

Ondorioz, esan genezake berak, helburu gisa, soziolinguistikaren definizioa egitea bere buruari eginkizuntzat ezarri ez badio ere, esan behar da, bidenabar, definizio hori eman duela eta hizkuntzaren egoeraz ikerketa egiterakoan nondik nora eta zer eratara aztertu behar den azaldu duela. Bestalde, hizkuntzak biziarekin duen lotura, hau da, hizkuntzaren bizia eta bizitzaren hizkuntza, berak askotan erabiltzen duen hitz lotura erabiliz, nik uste oso adierazgarria dela, hain zuzen, orain aipatzen genuen honetarako: soziolinguistika ezezik hololinguistika edo hizkuntzaren bizi osoa aztertzeke bideak irekitzen dituela adierazteko.

Beste ekarpen oso garrantzitsua zera da nire ustez: hizkuntza, noski, ikuspegi horretatik begiratuta, ez duela gramatika soiltzat hartzen, ez eta hizkuntzaren egiturari lotuta doazkion filologia edo fonologia eta beste arloei mugatuta ikusten. Are gutxiago hizkuntza abstrakzio gisa. Izan ere, hizkuntza bizitzarekin loturik ikusten duenez, hiztunak ditu gogoan eta

hiztunetatik abiatuko da, hain zuzen, hiztunik gabe ez dagoelako hizkuntzarik eta azken batean bizidun hiztunak direlako hizkuntz komunitate bat osatzen dutenak. Nik uste dut benetan inportantea dela aipatzen ari garen ekarpen hori, azken batean, batetik pertsonak edo hiztun motak, eta bestetik hiztun taldeak kontuan harturik, guztion artean osatzen duten hizkuntz komunitatea delako hizkuntzen bilakaeraren benetako subjektu edo agentea eta hori delako azken batean aipatu dugun prozesu hori guztia bizi duena: sortu, garatu, eta hil edo berreskuratu, hau da, gertaera guzti horiek bizi dituena. Hizkuntzari ematen dion nolabaiteko dimentsio pertsonal hori, batetik hiztunena eta beste aldetik hiztun taldeena eta hizkuntz komunitatearena, hain zuzen, izan da niretzat pertsonalki gehientsuen erakarri nauen aurkikuntza. Horixe baitzen hizkuntzek gertaera sozial gisa aztertuak izan ahal izateko zientziak, Etxepareren hitzetan esateko, «behar zuen tornua».

J.A.I: Hizkuntzaren statusari buruz mintzatzerakoan, soziolinguista aunitz azaltzen diren garai hauetan, hitzetik hortzera betikoak bailiren erabiltzen dira arestian aipaturiko hizkuntzaren egoeran dautzan hiru faktoreak: motibazioa, ezagutza eta erabilera, elkarren arteko uztartze eta garapenarekin; hiztun motak eta hizkuntz komunitatearen egituraketa; hizkuntz funtzioen arteko erlazio eta dinamika; e.a. Gure egungo eguneko hizkuntzarekiko pertzepzioa eta berori kontzientziatzeko eta azaltzeko tenorean ia denek erabiltzen ditugunak. Baina gure eremuetara ideia horiek ekarri zituen Txepetx izan da; ez «iritzi» mailan, batzuek iradokitzen duten bezala, hizkuntzaren bizian dautzan arauak baitira. Eta auzia bestela dela dioenik balego berau azaltzea besterik ez du.

I.L: Bai, nik uste dut hori dela, hain zuzen, berak azaldu nahi duena. Aztertu dituen hizkuntzetan zer gertatu den kontuan izanik (eta berak ehundaka hizkuntza aztertu ditu), diagnostiko zehatz bat eginez argitu du zeintzuk izan diren garatu diren hizkuntzek eraman duten bidea, motel edo bere horretan geratu diren hizkuntzek eraman dutena, galdu direnek eraman dutena eta berreskuratzea lortu dutenek eraman dutena. Hauek guztiak aztertu ondoren gauza izan da lege horiek zeintzuk diren adierazteko, eta nik uste dut inportantea dela garbi uztea horiek ez direla iritzi pertsonal batzuk edo gutxi gora-beherako kontu batzuk, baizik eta ongi jorratu ondoren, deskubrituak izan diren legeak. Noski, ez berak bakarrik, beste batzuek ere egin dituzte dudarik gabe beren aportazioak eta hor daude: gure artean lehenik ezagutu genituenak katalan eta valentziarrak (Valverdú, Ninyoles eta, bereziki, Aracil izan ziren ezagunenak). Bestalde, Estatu Batuetako Fishman eta Quebeceko Mackey. Europarren artean Calvet izan genuen ezagunena. Geroztik ezagutu ditugu beste batzuk ere. Bakoitzak egindako aportazioak interesgarriak badira ere, nik pertsonalki esan behar dut, irakurritako guztien artean, ez dudala Txepetxek ematen duen osotasunean eta zehaztasunean hizkuntzaren bizirau-penaren legeen nondik norakoaren berri ematen duen inor aurkitu. Bakoitzari berea, hori da giza legea.

«Soziolinguistikako zientzialariaren egiteko nagusia, beste edozein zientzitan bezala, hizkuntzaren egoera eta bilakaerak adierazteko balio duten kontzeptu unibertsalak sortzea edo asmatzea baita. Eta Txepetxek soziolinguistikako unibertsal asko argitu duela ezin uka»

«Bestalde, esan behar da soziolinguistika hitza agian motz gelditzen zaiola eta berak aitortzen du azken aldian idazten dituen artikuluetan bere ikerketen gaia adierazteko gustoko hitza, soziolinguistika baino gehiago, hololinguistika hitza dela»

Horregatik, nik uste bidezkoa dela, zuk esan bezala, gure balorazioa egiterakoan Txepetxek egin duena kontuan hartu ondoren, hizkuntzaren biziraupenaren legeak zalantzan jartzen badira, balio dutenak zeintzuk diren azaltzeko eskatzea.

J.A.I Gauza bera esan daiteke beste zenbait arazoz, hala nola elebitasunarena. Hor ere gauzak ez nahastea oso garrantzizkoa da, eta Txepetxek arlo horretan ere baitaezpadako diren ekarpenak egin ditu.

I.L. Bai, horrela gertatzen da hizkuntz komunitateek bizi dituzten egoera distortsionatueta eta egoera horien inguruan sortzen diren arazo berezietan, hala nola, elebitasuna zer den eta nola ulertu behar den, norbanakakoaren eta sozialaren artean dagoen aldea zein den, bataren eta bestearen formulazio egokiak zein diren, eta irtenbide gisa agertzen diren elebitasun sozial orekatuek izan dezaketen tranpa edo engainuaren berri jakitea. Nik uste gai honi buruzko argibide asko eman dituela Txepetxek bere elaborazio teorikoetan, gure gizarteko egoera aztertzeke baliagarriak direnak. Besteak beste, elebitasun edo eleaniztasun kontua gizabanakoen kontua dela ulertarazteko, hau da, norbanakoa bi, hiru edo anitz hizkuntza mintzatzeko gai dela. Gizarte mailan, ordea, ez dela elebitasun sozialik ematen. Izan ere, Mackeyk esaten duen bezala, gizarte batean funtzio berberak betetzeko bi hizkuntza elkarren ondoan gertatzen direnean, bat, ahulena, sobera dago eta bestea, indartsuena, nagusitzen da. Are gehiago, lurralde batean bi hizkuntzen kidetasuna aldarrikatzen denean, bietako baten alde, indartsuenaren alde, apustua egin den seinale garbia izan ohi da. Horixe da Espainia eta Frantziako estatuek beren erresumetako lurralde guztietan egin dutena, nahiz eta zenbait lurraldek beren hizkuntza propioa izan.

Beste kontu bat da hizkuntz komunitate batek bere hizkuntza propioan bizitzeko duen ukaezinezko eskubidea, eta hori lurraldeari loturik doan zerbait denez, bere lurraldean garatzeko duen eskubidea. Horregatik esaten da hizkuntz komunitate bakoitzari zor zaiola bere lurralde propioa eta lurralde bakoitzak izan behar duela bere hizkuntza propioa. Lurralde propiorik ez duen hizkuntza, bere etxean erbesteratua dagoen norbaiten antzekoa da. Zentzu horretan lurralde bakoitzak izan behar duen elebakartasun soziala ondo ulertu behar da, lurraldeari loturik dagoen zerbaiten antzera eta garbi jakin, azken batean, proposatzen dena lurralde bakoitzak hizkuntza propio bat izateko duen eskubidea dela, hizkuntza bakoitzak lurralde bat izateko duen eskubideaz ari garela, eta hori errespeta-tzen ez den bitartean hizkuntz komunitateen berdintasun printzipioa ez dela inolaz ere salbatu ahal izango, eta ondorioz, hizkuntz komunitateen artean ematen diren zapalkuntza eta egoera glotofagikoak ez direla bukatuko, hizkuntzaren ordezkapen edo sustituziora eramaten duen bide edo prozesuetan sartuta segiko dugularik. Horregatik, garrantzi handiko kontua da, errealitatearekin oso lotua dagoelako, kontzeptu eta azalpen horietan oinarrituz era egoki batean hizkuntzen arteko harreman horiek definitu eta ezagutu ahal izatea.

J.A.I Esan duzun guztian eta esaten ari garen honetan denetan, besteak beste, ardatz eragile edo hezitzaile nagusi gisa, berdintasunaren mintzoa datza; horren bitartez, hain zuzen, hizkuntzaren bizian baitaezpadako oinarri-helburua nabarmentzen da (hizkuntza guztiak berdin direla gaitasunez bizitzarako, eta eskubidez eta obligazioz sozial mailan); ohargabea bada ere, gure biziraupenaren iturria izan dena beti. Berdintasunarena askotan uniformetasun kontzeptutzat hartzen ohi da, eta zeharo alderantzizkoa da; berdinak izatea, duintasun berekoak, uniformidadearen aitzikoa baita; berdinak bezenbat bakarrak eta bereziak. Berdintasun hori askatasunez, elkarren arteko ezagutzaz eta preziatzez mamitzen da; ahan-tzi gabe, zuk aipatu duzun moduan, lurraldetasunaren ausia, hizkuntzari dagokionez. Txepetxeekin gertatu da berak hain buru eta bihotz aldarrikatzen duen berdintasunaren mintzoa, hastekotz eta bat, berarekin eta bere emariekin ez dela aplikatu. Ez ote horrek erakusten, hari helarazi min eta gaisotasunaren oihartzunaz landa, zeinen eri dagoen euskaldungoa? Esan nahi baita, desberdintasunaren ideien munduan eta itzalean elikatuak eta ohituak, berdintasunaren mintzo osagarria izan daitekeenaren aitzinean ezin osasuntsu ihardets gabiltzala baitirudi, sendabide daitekeena uxatzen. Ondorioz, osagarri zitezkeenak ahuldu eta indargabetu, zentzuz amaundu egin ohi dira, sistimak aise errekuiperatzeko gai gelditzen direlarik. Puska handi batean hori gertatu da. Bakarren batzutan baliabide eskasez, gutiz gehienetan baliabide mental eta jatortasun eskasez, esanen nuke nik. Eta hori injustua ezezik grabea da; gure statusaren pertzeptzioa eta aplikazioa guretzat hilgarria den eta gainditu nahi omen dugun desberdintasunaren beraren kumea baita. Ezin horrela tentsio haustura edo herio-bidetik atera eta bizibideari abia.

Mintzo hori, beraz, puska handi batean, sozializatze prozesuan dago; ez, ordea, ondikotz, behar lukeen maila eta sakontasunean (elkarren arteko ezagutze, eskerron eta ordaina aintzakotzat hartzen dituenekoan); nahiz eta aspaldi honetako herri arnasatik datozen dinamikak, oro har behinik behin, haien itzalean sortu eta garatzen etorriak izan, eta ofiziala ere hartaz jauntzi eta baliatua izan. Hor badago arazo bat gure egungo egoerarekin zerikusia duena, statusarekin eta status honen gaineko pertzeptzioarekin; beraz, terapiarekin eta gure osasun egoerarekin berarekin, herri arnasatik erakunde mailetaraino.

Txepetxenaren deserabiltze hori, beraz, euskaldungoaren eritasunaren sintoma dela daukat. Eta arras antzeko joera-egoera lehendik ere biziturik nago, duela zenbait urte politikagintzan. Horrela digu kukurruku jotzen oilarrak.

I.L. Berdintasunaren printzipioaren aportazio hori nik uste benetan oinarritzkoenetakoa dela bere planteamenduan, eta hizkuntzen arteko berdintasun hori aipatzerakoan oso garbi uzten du ez dagoela hizkuntza bat, berez, bestea baino hobea denik, bat bestea baino ederragorik, modernoagorik. Zoritxarrez gertatzen dela gaur egungo egoera eta hizkuntz komunitateen artean berdintasun printzipio hori puskatu edo apurtu edo

«Uste dut benetan inportantea dela aipatzen ari garen ekarpen hori, azken batean, batetik pertsonak edo hiztun motak, eta bestetik hiztun taldeak kontuan harturik, guztion artean osatzen duten hizkuntz komunitatea delako hizkuntzen bilakaeraren benetako sujetu edo ajentea»

«Beste kontu bat da hizkuntz komunitate batek bere hizkuntza propioan bizitzeko duen ukazinezko eskubidea, eta hori lurraldeari loturik doan zerbait denez, bere lurraldean garatzeko duen eskubidea. Horregatik esaten da hizkuntz komunitate bakoitzari zor zaiola bere lurralde propioa eta lurralde bakoitzak izan behar duela bere hizkuntza propioa. Lurralde propiorik ez duen hizkuntza, bere etxean erbestera dagoen norbaiten antzekoa da»

aintzakotzat hartzen ez delako, hizkuntzen arteko harremanetarako eta hizkuntzen definiziorako halako tipologia pozoinduak dauzkagula: batzuk, hizkuntza modernoak eta besteak atzeratuak dira, batzuk zibilizazio hizkuntzak eta kultur hizkuntzak eta besteak, berriz, primitiboak eta jende atzeratuarenak, eta batzuk zientzia eta kultura egiteko balio duten hizkuntzak dira eta besteak, berriz, familian edo lagunartean edo justu kolokial mailan erabiltzeko hizkuntzak. Horrela hizkuntzen arteko berdintasun printzipioa apurturik gelditzen da. Horiek dira hizkuntz komunitateen artean ematen diren desberdintasunen ondorio eta hizkuntz komunitateen berdintasun hori onartzen ez den edo aintzakotzat hartzen ez den seinale.

Bestalde, hizkuntz komunitateen arteko berdintasun printzipio horrek komunitate beraren baitan sortzen duen lotura kontuan hartzen badugu, azken batean, hizkuntz komunitatea osatzen duten hiztunen arteko harremanen lege ere bihurtzen da, elkarbizitzaren lege nagusi gisa berdintasunaren printzipioa hartzen baitute, eta orduan hizkuntz komunitatea behar bezala garatzen da berdintasunaren printzipioa onartuz eta errespetatuz.

Hemen aipatu behar dira, baita ere, hizkuntzaren garapenerako ezinbestekoak diren elementu gisa, hizkuntzaren metafuntzioak deiturikoak, hau da, sormenaren, prestakuntzaren eta aplikazioaren funtzioak. Horien artean ere aplikatu behar baita berdintasunaren printzipioa. Izan ere, horien artean ere berdintasunaren jokorik ez dagoen neurrian, ezinezkoa gertatzen da hizkuntz komunitatearen garapen osoa edo normalizazioa.

Eta hor zuk esan duzunarekin bat nator, konkretuki eta euskal komunitateari dagokionean esan behar dela Jose Marik hizkuntz komunitatearekiko egin duen sormen lana eta bete duen funtzio hori, beharbada, ez dela prestakuntzaren eta aplikazioaren parean jarri eta ez zaiola ez prestakuntza aldetik eta ez aplikazio aldetik zor zitzaion edo merezi zuen berdintasuneko traturik eman.

J.A.I Ez eta geure buruaren osasunari ere zor zaion gisan.

I.L: Jakina! Azken batean berdintasunaren printzipioak balio duelako baita ere gure osasuna eta bizia garatu ahal izateko. Horregatik, nik uste dut berdintasunaren printzipioak ematen duen eta duen sakontasuna izan dela beste argi nagusienetako bat.

Gero, noski, horrekin lotuta doazen hizkuntz komunitatearen biziraupena ziurtatzeko berak aipatzen dituen beste hainbat elementu daude: hasi oinarritzko ikasketa prozesutik, nola natural hala kulturaletik, gero, hizkuntza ikasketa prozesu horietatik abiatuz hizkuntzaren biziraupena bai transmisioaren bidez baita gizartean ematen diren elementu eta mekanismo guztien bidez eta hizkuntzak dituen funtzio garapenaren bidez. Gero datoz, azken batean hizkuntz komunitatearen artikulaziorako ezinbestekoak diren elementuak eta, besteak beste, orain aipatzen zenuen hori: hizkuntzaren helburuak eta beren baitan edo menpean egon behar lukeen

botere politikoa eta baliabideak, eta ez alderantziz, hizkuntza botere politikoaren menpe edo interes politikoei subordinaturik egotea. Hori gertatzen denean hizkuntzaren normalizazio prozesua distortsionaturik gelditzen baita, eta orduan, nekez lor liteke hizkuntzaren normalizazioa.

Hori guztia argitzeak ematen du, nire ustez, ikuspegi berri bat, hizkuntz komunitate batek sorreratik hasi eta garapeneraino, zuk esan duzun moduan, herio-egoera batetik edo herio-bide batetik, haustura tentsio genetiko pasatuz, biziaren bidea egiteko, berreskurapenaren bidea egiteko. Nire ustez Jose Marik egin duen beste aportazio garrantzitsuenetakoa, dudarik gabe, diagnostiko berri bat egiteaz aparte, diagnostikoa lehen ere ezaguna baitzen formulazio berberarekin ez bazen ere, hauxe izango litzateke: hizkuntza batek bere berreskurapen eta normalizazio prozesuan jarraitu behar duen bidea zehatz-mehatz azaltzea.

J.A.I Diagnosia eta terapia biak eskaintzea lortu duela, alegia.

I.L: Hori da, ea zer pauso eman behar diren egoera normalizatu horretara iritsi ahal izateko, ea zein abiapuntu hartu behar den nuklearizazio eta konkretuki, gure kasuan, euskaldunen konpaktazio eta trinkotze prozesutik abiatuz normalizazioraino iritsi arte, tartean dauden lege baldintzak aldatuz, jarriak dauden trabak eta oztopoak baztertuz eta barrera psikologikoak eta sozialak gaindituz, azken batean, hizkuntzaren normalizazioa lortu arte. Orduan hor argibide bereziak daude eta era horretan eta sistematizazio maila horretan inork bere aurretik formulatu ez dituenak, gure artean behintzat eta hemendik kanpo ere ez. Horregatik, pentsatzen dut alde horretatik gutxienez merezi duela, hamar urte pasa direla kontuan izanik, aportazio hori benetan azpimarratzea eta gogorapen bat egitea. Izan ere, hori hor dago eta hor jarraitzen du oinarri gisa hortik aurrera sormen lan horrek behar berriei erantzuten eta premi berriei irtenbide berriak aurkitzen jarrai dezan.

J.A.I Bai, Txepetxen ekarpenaz mintzatzekoan, lehenengo eta behin, harekiko egungo egoera eta jarrera nabarmentzeak dirudi premiazkoena. Euskaratik abiatuz, hemen eta orain, sortu den soziolinguistikazko diskurtso bakarra izanagatik ere ez baita bere osotasunean ulertu-onartu izan. Dena ez da beltz, araz, badira aitziko ibilbide bakan batzuk, baina funtsean, orokorki, hala da.

Administrazioan, joko politikoa dela eta, ideologiazko errekupeazioa zeinen handia den ikusirik eta, ez da hain harrigarria hala gertatu izana; baina herri arnasatik datorren dinamikan ere, nahiz gutiz gehienetan han bazkatuak izan, iturri hartatik edanak, erdi ez ulertze-onartze dela kausa, ustezko «neutrotasun» batean gelditu nahia-edo nabari da. Txepetxen ekarpenen gainean egiten diren azalpenetan edo monografikoetan ere antzeko joera nabari da, auziaz bustitzea eta engaiatzea halakoan antolatzaileri ez bailegokien. Ulertu-onartu-aplikatu ez, edota nahi bezala (des)erabili ondoren, soziolinguistikazko arloan harek ekarri duenaz eztabaida besterendua dut mintzagai. Hemen ere desarrazoiaren menpera-

«Berdintasunarena askotan uniformetasun kontzeptutzat hartzen ohi da, eta zeharo alderantzizkoa da; berdinak izatea, duintasun berekoak, uniformidadearen aitzikoa baita; berdinak bezenbat bakarrak eta bereziak»

«Txepetxekin gertatu da berak hain buru eta bihotz aldarrikatzen duen berdintasunaren mintzoa, hastekotz eta bat, berarekin eta bere emariekin ez dela aplikatu. Ez ote horrek erakusten, hari helarazi min eta gaisotasunaren oihartzunaz landa, zeinen eri dagoen euskaldungoa?»

tzaile sistimaren sozioetika bikoitza, *nirea nire eta zurea biren*, aplikatzen baita; hortik, besteak beste, epaile eta partaide izan nahi izatea, administrazioaren hizkuntz politikan partaidetza ukatu dutenak gero hemen egin den ekarpen bakarrari buruzko «eztabaidan» azaldu nahi izatea. Bestela esanik, bada inor administrazioan edo kanpotik ekarritakoen artean, edo herri mailan, pareka daitekeen teoriarik sortu duenik? Hartaz benazko eztabaidan eman nahi duenik? Noiz arte gure herriak behar duen hizkuntz politika sendo eta bizigarria hizkuntz arazoaz teknikari maila baikik —onenean— eta ideologian gaitasunik ez dutenen esku uztea? Entzun ohi diren kritikek doilorkeria ezezik, teoriarekiko ezaguera eskasa baino gehiagorik erakusten ote? Eta abar, eta abar.

Gisa batez edo bestez joko horretan sartzen direnak —berau elikatzen dutenak— gidari-erreferentzi (izan nahi) izatea euskaldungoaren gaisotasunaren beste islada grabea delakoan nago. Alabainan, denek dute elkarlanaren beharra aldarrikatzen, baina berau elkarrekin egitearen zentzuan soilik; eta hori makurrago ez denean: ideien ebasgo librea, inorenak ez bailiren, eta politika eta erabakien administrazio-monopolioa. Zinezko eztabaida bideratuko balitz, hastekotz eta bat, ikusi beharko litzateke bakoitzak zer duen aportatu eta aportazio horren arabera zein den bakoitzari legokiokeen tokia; elkarlanean funtsezkoa baita ideiak, pertsonak eta errekur-tsoak modu justu eta orekatu batez, berdintasunez, antolatzea. Eta hori ez administrazioan, araz, ez herri dinamikan ere ez da eman.

Berori zinez abiarazten ez den bitartean, nekez eman dakioke buelta azpian harrapatzen eta besterentzen gaituen desberdintasunaren mintzoari.

I.L. Bai, zuk aipatu duzunaren ildotik eta puntutxo bat zehazteagatik, behar bada, gure artean behin baino gehiagotan hori aipatu izan dugulako eta Jose Marirekin ere..., penagarria dela gure gizarte honetan gertatzen dena, hain zuzen, zuk aipatu dituzun ideia, pertsona eta baliabideen kontu horretan. Zoritxarrez gertatzen delako, kasu askotan behintzat, ideiak dituztenek ezin dituztela baliabideak eskuratu eta, alderantziz berriz, errekur-tsoak dituztenek ideiak falta dituztelako, edo ez dutela ideiarekiko jarrera irekirik. Eta, noski, horrek bai eramaten gaituela egoera guztiz distorsionatu eta arriskutsu batera, jokabide horien ondorioz ideien eta sormenaren mundua lurperatua edo ezabatua edo itzalia gera baitziteke. Eta beste aldetik arriskua dagoelako baliabideak beharko litzakeen moduan eta ideiek eskatuko luketen moduan ez erabiliak izatekoa.

J.A.I Azalean bestela badirudi ere, funtsean berdina da, eta errepikatu nahi ez omen dugun ideien hazia ereiten ari gara behin eta berriz.

I.L. Bestalde, zuk aipatzen zenituen aplikazioetara etorri, nik uste gure azken bost urteetako lankidetzaren esperientzia, lehenagokoa ere bai, oso aberatsa izan dela alde horretatik. Batetik, guk egin ditugun azterketa mota guztietan bera izan dugulako lankide. Zenbait kasutan eta azterketa soziolinguistikoak barne, berari pasa dizkiogulako, berak bere ikuspegi eman ziezaigun guri, eta gutxi edo gehiago bere oharrak eta bere kri-

tikak egin zitzan guk egindako lan horiekiko. Beste kasu batzuetan lan bereziak eta propioak eginaz, adibide gisa hartuz, Bilboko udalarentzat egindako azterketa soziolinguistikoaren osagarri gisa, Jose Marik idatzi eta oraindik argitaratu gabe dagoen lana dago: *Aplicación sociolingüística de la territorialidad* (Bilbo/Bilbao como modelo).

Eta hortik haruntzago joanez, azken bost urte hauetan egin ditugun lanean, bereziki, elkar lankidetzan hertsian eraman ditugun lan batzuk aipatuko nituzke, gehienak irakaskuntza munduarekin loturik zeudenak. Izan ere, irakaskuntza munduan, hainbat ikastetxetatik izan ditugu eskaerak: eman dezagun haurrek euskara ikasi bai eta euskaraz irakaskuntza jaso bai, baino euskara erabili ez zutela egiten eta arazo horri irtenbide bat aurkitu behar zitzaiola; horren inguruan kezkatuak zeuden Hezkuntza Administrazioako edo ikastetxetako guraso eta irakasleak egin dizkiguten eskaerak izan dira.

Arazo horiei irtenbide bat aurkitu nahirik Jose Marik, bere teoriatik abiatu egindako diseinua zentzu horretan guztiz baliagarri gertatu da. Sormen edo teori lan hori, aplikazio edo egikaritze mundura nola ekar daitekeen azaltzeko. Besteak beste, ulertaraziz jendeari erabileraren arazoa planteiatzen denean, jokoan dagoena ez dela bera bakarrik, erabilera nahitahiez ezagutzarekin eta motibazioarekin lotua dagoelako eta orduan motibazioa eta ezagutza eta erabilera hirurak batera lantzen ez badira eta hirurak batera kontuan hartzen ez badira eta hiruretan zer ikusia duten guraso, irakasle, ikasle eta gaineratikoak parte hartzen ez baldin badute, ezin dela inolaz ere arazoa zatika edo saihesten batetik helduta bakarrik konpondu. Oso garrantzitsua dela, beraz, era horretan, bere osotasunean arazoa aztertzea eta bere osotasunean osasun bideak bilatzen hastea. Gaixotasunaren sintomak alde batetik badatoz ere, sintoma horiek ez direlako nahitahiez alde bakarreko gaitzaren adierazle, baizik gorputzaren gaixotasun oso baten adierazle izan ohi direlako.

Zenbait esperientzia oso interesgarriak izan dira, hala nola: zenbait ikastetxetan hezkuntza proiektua garatzeko orduan erabili izan dugu ikuspuntu hori eta metodologia berbera, beti ere, ikuspegi teorikoarekin oso loturik. Marko teorikoa eta aplikazioa edo egikaritzapena eta lotura horri esker, nik uste, elkar aberastu izan direla bai teoria eta bai aplikazioa.

Badira beste apartazio guztiz interesgarriak ere, eta laburrago esanaz, Donostiako haur erdaldunentzat jolasbidez euskara ikasteko antolatu diren haur txokoak. Era horretan lortu da haurrak jolas giroan beren jarrekin aldatuz eta bere euskararekiko motibazioa landuz ezagutza eta erabilera minimo bat eskuratzea.

Antzeko zerbait esan behar da baita ere, gazte erdaldunei begira egindako irratsaioen emankizunei buruz. Irratsaio horiek euskararen aurka erabiltzen diren hainbat esaldi edo dauden aurreiritzi edo prejuizio eta estereotipo hartzen zuten oinarritzat, horiek aztertu, jorratu eta bere sustaian zituazten ideia pozoinduak edo zornatuak desartikulatzeko edo

«Aipatu behar dira, baita ere, hizkuntzaren garapenerako ezinbestekoak diren elementu gisa, hizkuntzaren metafuntzioak deiturikoak, hau da, sormenaren, presentakuntzaren eta aplikazioaren funtzioak»

**«Txepetxen ekarpenaz
mintzatzerakoan,
lehenengo eta behin,
harekiko egungo egoera
eta jarrera
nabarmentzeak dirudi
premiazkoena.
Euskaratik abiatu-
rik, hemen eta orain, sortu
den soziolinguistikazko
diskurtso bakarra
izanagatik ere ez baita
bere osotasunean
ulertu-onartu izan.
Dena ez da beltz, araz,
badira aitziko ibilbide
bakan batzuk, baina
funtsean, orokorki, hala
da»**

desmontatu ahal izateko. Era horretan, gazte mundutik eta oso era ludikoan eta irrati saio batzuei dagokien lotsagabetasunarekin, gazteei ego-
kituriko hizkuntza batekin lantzen zuten gazte mundu horretan erabil-
tzen diren zenbait diskurtso ezkor eta euskararen kontrakoei aurre egite-
ko argudio eta arrazoiak eztabaidatuz.

Azkenik, hemen aipatu beharko genuke, baita ere, guztiz interesgarria
izan delako, irakaskuntza ertainetako eta euskaltegi-tako irakasle diren
hainbat lagunekin egin diren ikastaro bereziak. Ikastaro hauek, lehen ai-
paturiko irratsaio horietako partaide ziren gazteen jarrerak irakasleengan
sortzen dituzten arazoei irtenbideak aurkitzera zuzenduak izan ziren. Eta
horiek ere guztiz interesgarriak izan direla aitortu behar da. Zentzu ho-
rretan eguneroko bizitzako problematika konkretu eta zehaztetik abiatu-
ta teoriaren argibideak emanaz, argitu ahal izan direlako hainbat eta
hainbat arazo. Orduan, zentzu horretan, garbi ikusten da lehen aipatzen
genuen lotura hori, sormen, prestaketa eta aplikazio lanak elkarren ar-
tean izan behar duten lotura hori lortzen denean, hori efektu biderka-
tzaile bihurtzen dela eta horrek ondorio eta ekarpen aberatsak ekartzen
dituela.

J.A.I Bai, aunitz dira egin dituen eta urratu dituen lanak eta eskaini di-
tuen bide berriak.

Batzuetan gertatzen da ideiak eta mintzo berriak behar baino goizago
iristen direla. Hezkuntza mailan gauza eredugarri frango izan da, arras
osagarri eta bizigarriak irakaskuntzan eta hezkuntzan planteatzen diren
arazo larriak gainditzeko; nahiz eta kasu guztietan garapen osorat
iritsiak ez izan.

Bestalde, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Bilbon Zenbat Gara elkartearen
inguruan garatzen ari dena. Hor ere, bizian oinarritutako praktika izan
du bide Zenbat Gara elkarteak eta, bestalde, oraintxe berean ere ideia
horiek ditu elikagai eta xede; ondoren sormena ezagutu, onartu eta balia-
bidez segurtatzen hasi, orain arte ez bezala; ezagutza teoriz eta praktikaz
aberasten eta osatzen joan; erabilera argiz mamitu eta sustatu, funtzio eta
eremu berriak irabazteko; eta dena etengabeko uztartze eta jauzi kua-
litatiboaren kontzientzia eta testuinguruan, hizkuntz komunitatea egitu-
ratzeko abiadari lehen ere baino adoretuago eta sakonago lotuz. Urrats
asko emateke daude, bistan da, baina zinezko argi berritzaile izan daite-
ke gauzak planteatu eta abiatu diren bezala garatzen badira.

Ez dezagun ahantz, bestalde, oraingo statusari buelta emateko aski pres-
taera badugulakoan bagaude ere (egia ez dena, prefofa), hizkuntzaren
arazoak etengabekoak direla eta hizkuntzaren bizi-herioa egoera beti hi-
gitzen doala; laster gero arazo eta eraso berriak datozkigu, lurraldetasuna
kasu. Horiei aurre egiteko nahitaz bizigarria den dinamikan sartu behar
dugu, praktikatik sormenari arazo berriak planteatu, sormenak argi be-
rriak ekar ditzan, berau praktikaz elika dadin, praktika argi berri hortaz
aberasten eta zehazten joan dadin. Horrengatik da are ulergaitzagoa, onar-

tezinagoa, hemen halakorik ez bailegoen ihardutea.

I.L.: Bai, eta hor nik uste dut inportantea dela bi gauza azpimarratzea. Batetik, uste izatea badugula nahikoa argibide, nahikoa informazio eta nahikoa teori eta hontaz balia gintezkeela. Edota, bestetik, uste izatea gauzak bideratuta daudela, eta normalizazio osoan ez bada ere, bidean gaudela eta gauzak bere denbora behar dutenez ezin dakiokela inori gehiagoko eska. Izan ere, gauzak badoaz eta osasuntsu doaz, eta egoera osasuntsuan aurkitzen gara.

Egia da bai, azken 30 urte hauetan, 1960 urteaz geroztik, hainbat ekimen burutu direla euskararen berreskurapenaren alde.

Lehenik, kronologiari jarraituz, herri ekimenetik sortutako ikastola eta euskalduntze-alfabetatzeak aipatu behar, horiekin bateratsu herri-irratia, aldizkariak, liburugintza eta abestigintza.

Geroago, herri ekimenetik eta beste erakundeetatik ere egiten dira ahalegin berriak kasu batzuetan lehengoak hedatuz (irakaskuntzan eta helduen euskalduntze alfabetatzean alde batetik, eta irratigintzan, liburugintzan eta aldizkariagintzan, bestetik) eta beste kasu batzuetan esparru berrietan eraginez (irakasleen eta administrazioko langileen euskalduntzea, euskarazko telebista katea sortzea, euskararen egoerari buruz ikerketak egitea, e.a.).

Azken urte hauetan egindakoen artean ezin aipatu gabe utzi alde batetik orain berriki sortu den Euskaldunon Egunkaria, UEMAko Mankomunitatea eta hainbat udalerritan sortu diren euskara taldeak; beste aldetik zenbait udaletako Euskara Zerbitzuetatik bideratu diren plangintza eta sustapen kanpainak ere.

Hori guztia egia da, begi bistan dago, beraz, ez da zilegi aipatu gabe uztea euskararen berreskurapen arloan ezer egin ez balitz bezala. Egin, egin da eta asko gainera. Hala ere, nik uste, zentzu horretan gerta dakigukeela engainu bikoitz batean erortzea.

Lehenik, sormenaren eta ideia berrien aldetik, hizkuntzak bizi dituen arazoak kontuan harturik ezinbestekoa gertatuko zaigu ideia berrien ekoizpena edo produkzioa eskuratu beharra eta, beraz, sormengintza horri leku bat egin beharko diogu eta ez nolana hikoia, preferentziala baizik. Leku preferentziala, garrantzi handiko kontua delako hizkuntzarentzat eta hizkuntzaren biziraupenerako, nolabait beharrei eta galderei erantzuten jakitea. Bestela arnas faltaz ito gintezkeelako. Orduan, zentzu horretan, uste dut penagarria dela Jose Mari gure artetik aldendu izana, bere sormen lan hori nolakoa izan den eta nolakoa izan daitekeen kontuan izanik, hemen ez duelako behar zukeen harrera onik edo onarpenik izan. Jose Mari bezalako norbait gure artean izanik ezin dugu hori galtzen utzi. Hemen bertan sormen lana egingo duen norbaiten premi gorrian gaudelako, kontrako sormen lana egiten duten asko baititugu.

Eta bigarren kontua nik uste zera da, hizkuntzaren etorkizunari eta hiz-

«Noiz arte gure herriak behar duen hizkuntz politika sendo eta bizigarria hizkuntz arazoaz teknikari maila baizik —onenean— eta ideologian gaitasunik ez dutenen esku uztea? Entzun ohi diren kritikek doilorkeria ezezik, teoriarekiko ezaguera eskasa baino gehiagorik erakusten ote?»

**«Zinezko eztabaida
bideratuko balitz,
hastekotz eta bat, ikusi
beharko litzateke
bakoitzak zer duen
aportatu eta aportazio
horren arabera zein den
bakoitzari legokiokoen
tokia; elkarlanean
funtsezkoa baita
ideiak, pertsonak eta
errekurtsoak modu
justu eta orekatu batez,
berdintasunez,
antolatzea»**

kuntz komunitatearen biziraupenari eta osasunari begira, kontuan izan behar dugu hemen marrazo beldurgarri inguratuta gaudela eta gaurko munduan hizkuntzen arteko harremanak, berdintasunaren printzipioan ez baizik desberdintasunaren printzipioan oinarrituta daudela. Egoera guztiz distorsionatuta dago, beraz, eta gainera ez dago geldi, eta gu ez gaude nolabait goxo-goxo egoera lasai batean, tentsio egoera bortitz batean baizik. Beraz, egoera horri aurre egiteko izugarritzko ahalegina egin beharra daukagu, indar mobilizazio bat egin beharra daukagu, hau da, dauzkagun ahalmen guztiak jarri behar ditugu martxan eta erabil ditzakegun baliabide guztiak erabiliz, apostu serio bat egin behar dugu guztiok, jokoan dagoen hizkuntz komunitatearen biziraupena ziurtatzeko.

Izan ere, desberdintasunaren printzipioa nagusi denean eta munduan zehar ezezik, gure artean ere hizkuntz kolonialismoa eta inperialismoa indar berritzen ari zaizkigunean, ezin gintezke goxo-goxo bertan geratu. Nik uste dut, nolabait esateko «rearme» moral, arrazional eta motibazional fuerte bat behar dugula. Eta zentzu horretan azken urte hauetako barrealdi edo sasi-normalizazioak, orain dela 10-15 urteko ilusio, gogo eta nahia, baretu eta gutxitu duela. Izan ere, jende askok ikusi du hemen, azken batean, euskara ikasi gabe eta euskara hitz egin gabe eta erabili gabe bizi litekeela, eta ez dela ezer gertatzen. Euskal Herrian bizitzeko euskara ez dutela inoiz ikasi beharrik izango.

J.A.I Edo Euskara eskoletan irakatsiz, baina gero ez erabiltzen, ez Euskaraz bizitzen. Bistan da, herri bat behar da, euskaldun izaten jarraitzeko borondatez mamitua; gero, biziko bada, komunitate horri behar duen osabidea apailatzea eta garatzea dagokio, ahal dituen aldeko guztiak bere aldera ekarriz; etengabe bizigarri den zirkuitoan emanaz. Azken batean, gu guhaur izaten hastea, hemen eta orain; esan nahi baita, nonahi eta beti.

I.L: Nik uste dut herriaren bizi nahia ezinbestekoa dela, eta herriaren bizi nahirik ez badago, ez dago hizkuntzaren berreskurapenik ez normalizaziorik ez ezer. Baina, herriaren bizi nahi horrek eta herriak bizi nahi izateak, beste baliabideen artean, argibidearen arnasa eta izpiritua eta sormenaren argia behar du.